astialdisarea.eus

ADIERAZPENA:

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEETARAKO AISIALDIKO HEZKUNTZA ARLOKO JARDUERA ETA PROIEKTUZ BETETAKO 2021 BATEN ALDE

Covid-19agatiko Pandemia hasi zenetik asko gara haur eta nerabeen eskubideei begira aisialdiko hezkuntza-jarduerak eta -proiektuak garatzen ditugun erakunde, zerbitzu eta eragile hezitzaileak. Esperientziak erakusten digu espazio seguruak direla, kutsatzerik eta agerraldi garrantzitsurik gabekoak, osasun-protokoloak zorrotz betetzen ditugulako, irizpide eta prozesuak zorrotz jarraitzen ditugulako eta inplikatutako talde sozio-hezitzaile eta eragileek erantzukizunez (konpetentziak eta balioak) eta zentzuz jokatzen dutelako.

**Euskal administrazio publikoei eskatzen diegu: Eusko Jaurlaritzari, Foru-aldundiei, Udalei eta Eudeli,** aisialdiko jarduera hezitzaileen garapena bideratu eta sustatu dezatela, haur eta nerabeen eskubideak bermatuko dituen tresna sozio-hezitzailea den neurrian. Eta horretarako:

1. Aukera eman dezatela jarduerak antolatzeko, edozein osasun-egoeratan. Susta dezatela jarduerak egitea urte osoan, udan eta oporraldietan. Planifika ditzatela urteko aisialdiko hezkuntza-programa eguneratuak, tokiko, foru eta autonomia mailako gizarte-, hezkuntza- eta kultura-politiken baitan.

COMUNICADO:

POR UN 2021 CON PROYECTOS Y ACTIVIDADES EDUCATIVAS EN EL TIEMPO LIBRE PARA LOS DERECHOS DE LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA.

Desde el inicio de la Pandemia por el Covid-19 somos muchas las organizaciones, servicios y agentes educativos que desarrollamos proyectos y actividades de educación en el tiempo libre para los derechos de la infancia y la adolescencia. La experiencia muestra que son espacios seguros, sin contagios ni brotes relevantes, gracias al cumplimiento estricto de los protocolos sanitarios, al seguimiento riguroso de criterios y procesos, y a la responsabilidad (competencias y valores) y sensatez, de los agentes y equipos socioeducativos implicados.

**Pedimos a las administraciones públicas vascas: Gobierno Vasco, Diputaciones Forales, Ayuntamientos y Eudel,** que faciliten y fomenten el desarrollo de actividades educativas en el tiempo libre, derecho de la infancia y la adolescencia e instrumento socioeducativo garantía de derechos. Y para ello:

1. Hagan posible la organización de actividades, en cualquiera de las situaciones sanitarias. Impulsen la realización de actividades durante todo el año, el verano, y los periodos vacacionales. Planifiquen programas anuales actualizados de educación en el tiempo libre, como parte de las políticas sociales, educativas y culturales, locales, forales y autonómicas.

2. Egin ditzatela adierazpen publikoak aisialdiko hezkuntzaren alde, haren ekarpenen inguruan, espazio segurutzat hartuz, haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko, hezkuntza-eragile gaituekin eta arduratsuekin. Eta komunikazio-, sentsibilizazio- eta sustapen-ekintzak gara ditzatela.

2. Realicen declaraciones públicas en favor de la educación en el tiempo libre, de sus aportaciones, como espacios seguros, para la garantía de derechos de infancia y adolescencia, con agentes educativos capacitados y responsables. Y desarrollen acciones de comunicación, sensibilización y promoción.

3. Babes ditzatela aisialdian hezkuntza-jarduerak eta -proiektuak garatzen dituzten erakunde eta zerbitzuak. Malgu ditzatela Covid-19ak eragindako egoera dela eta egokitzeko izapide eta prozesuak.

3. Apoyen a las organizaciones y servicios que desarrollan proyectos y actividades educativas en el tiempo libre. Flexibilicen los trámites y procesos para adecuarlos a la situación provocada por el Covid-19.

4. Lagun dezatela sentsibilitatez eta maitasunez, EAEko hirugarren sektore sozialak sustatutako proiektu eta jarduerak antolatzen: orientazioa, beharrezko finantzaketa, instalazioak, baliabideak, ahalbidetuko duten dekretu eta neurriekin.

4. Acompañen con sensibilidad y cariño, la organización de proyectos y actividades promovidas por el tercer sector social vasco: orientación, financiación suficiente, instalaciones, recursos, decretos y medidas que lo posibiliten.

5. Publikoki aitor dezatela eta bistara ditzatela gazte boluntarioek erakunde eta taldeetan egiten dituzten ekarpenak, Covid-19aren garai zailotan haur eta nerabeen oinarrizko eskubideei erantzuteko proiektuak garatzen baitituzte, komunitateak sortu, eraldaketa sozialeko giza balioak eraiki, gizarte ahuldu batean pertsonak zaindu, eta inor atzean ez uzteko konpromisoa baitute.

5. Reconozcan públicamente y visibilicen las aportaciones de las personas jóvenes voluntarias, en equipos y organizaciones, que en estos tiempos Covid-19 de complejidad desarrollan proyectos que responden a los derechos básicos de la infancia y la adolescencia, crean comunidades, construyen con valores humanos de transformación social, cuidan de las personas en una sociedad fragilizada, y están comprometidos para no dejar a nadie atrás.

6. Azter dezatela Covid-19ak aisialdiko hezkuntzan haur eta nerabeen eskubideei dagokienez izan duen eragina, eta erantzun diezaiotela.

6. Analicen y respondan al impacto de la Covid-19 sobre la educación en el tiempo libre para los derechos de la infancia y la adolescencia.

7. Jar ditzatela funtzionamenduan elkarrizketarako eta elkarlanerako mahaiak erakunde eta zerbitzuekin, maila

7. Pongan en funcionamiento mesas de diálogo y cooperación con las organizaciones y servicios, a nivel autonómico, foral y

autonomikoan, foru mailan eta udalerri mailan, jarduera hezitzaile horien garatzea sustatzeko eta bultzatzeko.

Izan ere, Covid-19a ondorio larriak sortzen ari da haurrengan, nerabeengan eta gazteengan, ondorio sozial, hezitzaile, ekonomiko, kultural eta abarretan duen eraginagatik, pertsonengan, familiengan eta komunitatearengan. Asko dira zailtasun eta arrisku berriak. Haur eta nerabeen garapenean: prebentzioa, sustapena, babesa... Laneko eta familiako bizitza bateratzean.

Haurrak eta nerabeak zaintzea gizarte eta komunitate mailako lehentasuna da. Eta aisialdiko hezkuntza, hezkuntza ez-formala, integrala, etengabeko prozesua da, haur eta nerabeen garapenaren zerbitzura, eta zaintzara bideratua. Haur eta nerabeekin egiten den aisialdi hezitzailea berdinen arteko topagunea da, konpetentziak eta balioak garatzeko, komunitatea eraikitzeko, jolaserako eskubidea, ingurune segurua, partaidetza soziala, ikaskuntzak eta bizitzarako esperientziak izateko.

Presazkoa eta lehentasunezkoa da aisialdia kokatzeko eginahala egitea, baita aisialdi hezitzaileko politikak kokatzea ere, pertsonen garapenerako ekintza sozial, hezitzaile eta kulturaleko tresna aurreratu gisa.

**ASTIALDI SAREA** | Euskal Herriko gizarte esku hartzerako eta astialdi hezitzailerako erakundeen sarea

bulegoa@astialdisarea.eus | T. 688 87 65 29

municipal, a fin de facilitar promover y potenciar el desarrollo de estas actividades educativas.

Porque la Covid-19 está generando graves consecuencias en la infancia, la adolescencia y la juventud por el impacto de sus efectos sociales, educativos, económicos, culturales,... sobre las personas, las familias y la comunidad. Son muchas las nuevas dificultades y riesgos. En el desarrollo de la infancia y la adolescencia: prevención, promoción, protección.... En la conciliación de la vida laboral y familiar.

Porque cuidar de la infancia y la adolescencia es una prioridad social y comunitaria. Y la educación en el tiempo libre, educación no formal, integral, es un proceso permanente, al servicio del desarrollo de la infancia y la adolescencia y de sus cuidados. El ocio educativo con infancia y adolescencia es espacio de encuentro entre iguales, para el desarrollo de competencias y valores, construcción de comunidad, derecho al juego, entorno seguro, participación social, aprendizajes y experiencias para la vida.

Porque es urgente y prioritario incidir para situar al ocio, y las políticas de ocio educativo, como un instrumento avanzado de la acción social, educativa y cultural para el desarrollo de las personas.

**ASTIALDI SAREA |** Red de organizaciones para la intervención social y la educación en el tiempo libre de Euskal Herria.

bulegoa@astialdisarea.eus | T. 688 87 65 29